

ISABEL BAQUEDANO

2023ko martxoaren 9a - maiatzaren 11

CarrerasMugica

Martxoaren 9tik maiatzaren 11ra, CarrerasMugicak atsegin handiz aurkeztuko du Isabel Baquedanoren erakusketa bat, 1998an egin-dakoaren ondoren bigarrena.

Erakusketa prestatzeko, Madrilgo Guillermo de Osma galeriaren ilusioa eta lan ona izan ditugu, maiatzean eta ekainean obrak hartuko baititu galeriak.

Isabel Baquedanoren obran murgiltzeak aukera ematen digu margolarien belaunaldi baten abenturaren berri izateko, Antonio López, Isabel Quintanilla eta Alfredo Alcaínena, Madrilgo San Fernandoko Arte Ederren Eskolan trebatutako beste ikaskide eta lagun batzuen artean. Espainiako gerraondoko gizarteari begiratzera eta aurre egitera ausartu ziren, eduki sozialeko figurazio baten bidez, edo erreialismo moduko bat jorratuz, batzuetan intimista, baina beti adi 1950 eta 1960ko hamarkadetako pop artearen bilakaerari.

Hala ere, badirudi Isabel Baquedanoren lana pinturaren historiak eta Pradoko maisu handien obrak gidatzen dutela, ikasle-garaian maiz joaten baitzen haiengana eta batzuetan “margotzen” baitzitu.

Velázquezen obra miresten zuenez, beharbada, bere aurrean, margolariak sumatuko zuen obra erreialitatearekin lotzea ez dagoela irudikatutakoarekin lortzen den egiantz-mailaren mende, baizik eta koadroari aurre egiteko moduaren mende, pintura bitarteko bakar gisa hartuta.

Alabaina, Bilboko eta Iruñeko oraintsuko erakusketei hasiera eman zieten Baquedanoren lehen marrazki erlijioso bizi eta aktiboak gogoan izanik, pentsa daiteke margolariak betitik erantzuten ziola printzipio horri, Zaragozako Arte eta Lanbide Eskolan hasi zenetik.

Erakusketako lan askotan nabarmentzen da margolariak modeloaren irudikapen benazkoa —eta ez verista— egiteko zuen trebetasuna. Deigarria da naturaletik hartutako natura hil txikien multzoa, bizpahiru saiotan eginak, kolore bizi-biziz, eszenak eta fruituak eguna erori aurreko instant berean finkatu izan balitu bezala. Eta modu desberdinean margotu.

Era berean, marrazkiek adierazten dute ondo baino hobeto menderatzen zuela irudikapena (emakumearen besoetan dagoen katua, zehazki). Grafitoz eginda, pintoreak erabiltzen ditu irudien forma aldeztu aurretik ezagutzeko. Gero, mihisean doitasunez sintetizatuko ditu, koloreak gainerako zeregina bere gain har dezan. Koloreak, izaera eta erro subjektiboa izanik, jolastu ahal izan dezan, desirak zentzuaz haraindi eskatzen duena argitzen —autobiografiaren lurraldean, agian—.

Hala gertatzen da *zerbitzarien eta malabaristen* koadroetan —Isabelek luzaroan sentitutako maitasun-porrot baten berri emateko hartuak—. Esplikaziorik gabe, margolariak ezinbestez murriztu behar du koadroaren egikera naturalista, eta batere objektiboa ez den moduan erabili behar du kolorea. Alabaina, pertsonaiak etengabeko mugimenduan marraztuta daude, eta ironia —hausturaren lekuko sotila— ederki lerratzen da diatriba argiko posizio batetik posizio maitekorrago batera *malabaristen* koadroetan. Emakumeak gizonarekiko

dituen asmoen adierazpen oso bat osatzera iristen da: *bikotea txakurrarekin* agertzen duen eszenatik *foka-hezitzailearen* posizio ausartera.

Erakusketaren hirugarren talde tematikoa koadro erlijiosoak deiturikoei dagokie, eta jatorrian *malabaristen* ezaugarri formalei eusten diete: ondo sintetizatutako figurak, batere objektiboa eta modulatu ez den kolorearen erabilera, abstraktuagoa, pintura “sinbolistaren” moduan. Eta egia da koadro hauetako batzuek bide sinbolista argia hartzen dutela; hala ere, presarik gabe behatuta, nabaria da haietako bakoitzak gai zehatz bat jorratzen duela antolaketaz eta pinturaz, mezu kristaua orainaldiko gertakizun bat balitz bezala aurkezteko. Horretarako, etendura soilak gaitzen ditu, erlijio-irudikapenak konbentzioz izan beharko lukeen batasuna “zapuzten” dutenak: orban batzuk, beste koadro batzuen hondarrak...; eta pertsonaien begiradek eta norabideek egitura dinamikoa sortzen dute, koloreak —balio eta kontraste kromatiko osoz erabiliak— apur bat gehiago aktibatzeke, eta argi bihurtzeko muga urratzeko, lege eta arauz kanpo sakratuaren manifestua lausotuz.

Ez da kasualitatea Itun Berriko eszenetan gertatzea, hala nola *jaitsieretan*, non koloreak, era ezohikoan, asaldurazko kon-

takizun isil eta iraungiezinako baten adierazpen bizia jasotzen duen.

Kontrapuntu gisa, Maria atsekabetuaren koadro txikia, bermiloi argi eta urdin uherraren trazu ahaltzuaz jantzita; eta jaiotza kristauaren pintura handia, Jesusen irudiaren gainean durundi eginez. Soslaiz marraztuta, umeari Piero della Francescak argitzen dio une batez eta Andrea Mantegnak hurrengo istantean.

Mirari txikiak, hala ere, margotuak izan direla frogatzen dutenak.

Pintura eszenaratzeko modu bat, Isabel Baquedanok mila modu desberdinetan ausarki eginga, eta bere obraren garaiki-detasuna zehazten duena, jorratutako gaietatik harantz.




Isabel Baquedanok (Mendabia, Nafarroa, 1929 – Madril, 2018) Zaragozako Arte eta Lanbide Eskolan eta Madrilgo San Fernandoko Arte Ederren Eskolan ikasi zuen, eta 1957tik marrazketa eta modelaketako irakaslea izan zen Iruñeko Arte eta Lanbide Eskolan. Bere lana hainbat bildumatan dago jasota: Prado Museoa, Reina Sofía Arte Zentro Museo Nazionalea, Bilboko Arte Ederren Museoa, Artium Museoa, Nafarroako Museoa, Nafarroako Unibertsitatearen Museoko Bilduma, IVAM, Arco Fundazioa, Sorigué Fundazioa, Coca-Cola Fundazioa, Bancaja Fundazioa, Focus Abengoa Fundazioa, Caja Madrid, Caja de Burgos eta BBVA, besteak beste. 2019an, Bilboko Museoa atzera begirako erakusketa zabalak eskaini zion, Edertasunaz eta sakratuaz izenekoa, gerora ikusgai izan zena nola Nafarroako Museoa eta Nafarroako Unibertsitatearen Museoa.















Izenbururik gabe, 1988
Grafitoa paper gainean
16 x 11,9 cm





Escena en el templo de apolo en corinto, 2005. Oihal gaineko olio-pintura. 90 x 116 cm.



Izenbururik gabe, 90s
Boligrafo urdinezko tinta landare-paperaren gainean
11,7 x 12,3 cm



goian:
Izenbururik gabe, sd
Akrilikoak mihise gainean
39 x 47 cm.

behean:
La lucha de jacob y el angel, 2000
Akrilikoak mihise gainean
46 x 81 cm.







La lucha de Jacob y el angel, 90s
Grafitoa landare-paperaren gainean
20,5 x 14,3 cm.



El sacrificio de Isaac, 2001
Akrilikoak mihise gainean
41 x 33 cm

Eva y la serpiente, sd
Akrilikoak mihise gainean
40 x 53 cm.

Eva y la serpiente, sd
Akrilikoak mihise gainean
40 x 53 cm.







Anunciación, 1996. Akriliko mihise gainean. 41,2 x 33,2 cm.



Virgen doliente, 2011. Akriliko a mihise gainean. 26,5 x 23 cm.



Sagrada familia, c. 2011
Akriliko mihise gainean
61 x 50 cm.







La muerte de Lázaro, c. 2012
Grafitoa paper gainean
20,9 x 14,9 cm.





Descendimiento, 90s
Akrilikoa mihise gainean
38 x 46,1 cm.



Eva, 90s. Grafitoa paper gainean. 29,5 x 20,5 cm.





Izenbururik gabe, c.1986. Grafitoa paper gainean. 59,7 x 49,5 cm.



Frutero, 90s
Tablex gaineko olio. 29 x 23 cm.



Flores de el campillo, c. 1980
Grafittoa paper gainean. 20,8 x 26,9 cm.




Melón partido pintado al natural, c. 2012. Acriliko mihise gainean. 19,5 x 24 cm.



Bodegón de mendavia, 1984. Tablex gaineko olioa. 65 x 45 cm.

Izenbururik gabe, 80s. Grafitoa landare-paperaren gainean. 70 x 50 cm.







Interior con dos figuras, perro y perchero, c. 2000. Acriliko a mihise gainean. 69 x 55 cm.



Izenbururik gabe, 2004. Akriliko mihise gainean. 50 x 65 cm.

Izenbururik gabe, 2003. Akrilikoak mihise gainean. 35 x 27 cm.





Acróbatas, 2004. Akrilikoa mihise gainean. 41 x 33 cm.



Acrobata (mazar), 2002. Akrilikoa mihise gainean. 27 x 35 cm.





Pareja con perro, 80s. Acriliko paper gainean. 29 x 21 cm.



Izenbururik gabe, 2005. Akrilikoa mihise gainean. 50 x 50 cm.



Izenbururik gabe, 80s. Akriliko eta ikatza mihise gainean. 60 x 60 cm.



CarrerasMugica

www.carrerasmugica.com

info@carrerasmugica.com

Calle Heros 2 / E-48009 BILBAO
T. +34 944234725